



# TOLOSA PORSCHE AUTOEN BILTOKI, BIHAR

Porsche Gipuzkoak antolaturiko hirugarren konzentrazioa Tolosan amaituko da; 30 auto inguru bilduko dira denera >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2008-04-11

VIURTEA 1.405.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ainhoa Larrea kultur teknikaria eta Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea, atzo Antzerki Astearen aurkezpenan. I.GARCIA

## Pello Arzallus izendatu dute Bidegoiango alkate

**BIDEGOIAN** Zentsura mozioaren ondoren Juan Ugarte alkate ohiak zinegotzi jarraituko du 5



Erakusketan topa daitekeen argazkietako bat.

## 'Arruperen begirada' erakusketa, amaitzear

**IBARRA VII.** Aste Misiolariaren baitan antolatu duten erakusketa etzi arte dago ikusgai 6

## ASTEBETEZ ANTZERKI ZALEEN TOPALEKU BILAKATUTA

**ZIZURKIL** Hilaren 14an ekingo diote VI. Antzerki Asteari eta hilaren 20an amaituko da; «adin guztientzako» lanak izango dira ikusgai 4

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan  
deitu eta eskuratu



aspepelota.com

Apirilak 14 • astelehena • 16:30ean  
Tolosako Beotibar pilotalekuan

Uriarte - Apeztegia  
Cabrerizo - Galarza VI

CAPELLAN - GOÑI III  
GONZALEZ - NALDA III

Arizmendi  
Larralde  
(2. Mailako Eskuz  
Banakako Txapelketa)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95

# Txalaka

DENDA  
BERRIA

PROMOZIO ARTIKULUAK

Zure enpresa promozionatzeko aukerarik onena, mota guztietako artikulua, guztiak pertsonalizatzen ditugu. Ezkontza artikuluen aukera zabala

Korreo kalea, 46 • 20400 TOLOSA • promotxalaka@euskalnet.net  
Tel./Faxa: 943 11 71 63 • 605 725 517

**K** Kirol jarduera**Gaur****Areto futbol**

■ Gipuzkoako ligan, Tolargi eta Gure Txokoa ariko dira Usabalgo kantxa nagusian, 20:30ean.

■ Laskoraingo neskek Idiazabalgoan aurka lehiatuko dira 20:30ean, Usabalgo beheko kantxan.

**Esku pilota**

■ 20:00etan, Beotibar pilotalekuan 2. mailako banakako txapelketako partidak izango dira. Hemen, Reteigi II.a eta Apraiz, Belloso eta Olaetxearen aurka ariko dira.

**Bihar****Futbola**

■ Usabalgo zelaian, infantil txikien mailakoen partida izango da 11:00etan. Tolosa CFkoek ordizia izango dute aurkari.

■ 15:30ean Lurraldeko bigarren mailakoen txanda izango da Usabalgo zelaian. Amarozeok Geteria izango dute aurkari.

**Saskibaloia**

■ TAKE Laskoraingo infantil mailako nesken partida izango da 10:30ean. Hauek Bera bera izango dute aurkari. Bestetik, TAKEek baita Hernani hartuko dute aurrez aurre, Usabalgo kantxa nagusian.

■ 12:00etan, Kadeteen partida izango da Usabalgo kantxa nagusian. TAKEkoek Internacional C izango dute aurkari.

■ 18:00etan, TAKEko lehendabiziko mailakoen partida ikusi ahal izango da Usabalgo kantxa nagusian. Aurkari Goierri izango dute.

■ 12:00etan, TAKEko infantil mailakoen partida izango da Usabalgo beheko kantxan, hauek Zarauz izango dute aurkari.

■ 16:00etan, junior mailakoen txanda da, TAKEkoek Goierri izango dute aurkari beheko kantxan.

**Areto futbol**

■ 1go mailako Laskorain eta Orio izango dira aurrez aurre Usabalgo kantxa nagusian, 16:00etan.

**Eskubaloia**

■ 12:00etan Tolosako infantil mailakoak Zarauzen aurka ariko dira Usabalgo beheko kantxan.

# Korrika, Berazubin

**» Kale-kantoitik****Xoxemi Saizar**

**K**orrika ibili omen ziren parte-hartzaile asko aurreko astean Aizkardiren mendi martxan. Eta ibilaldi arautua izanik, prentsan horri eman omen dio garrantzia antolakuntzak, lehenazein denboratan bukatu zuen, alegia. Asko aldatu dira gauzak mendi giroan. Beste filosofia berri bat dator. Aizkorriko mendi maratoiaren eragina ote den diote batzuk. XIV orduko ibilaldia ere laster badator eta jendea ari da prestatzen. Batzuk oinez, beste batzuk korrika. Horrelakoetan Alpino Uzturre elkarrean aspalditik esaten dugunak bali du: Korrika egitera, Berazubira. Korrika ez, mantso eta lasai joan

behar da zinemara, azken hilabete hauetan norbaiten ekimenez egin diguten oparia aprobetxatzeko. Gipuzkoa eta Euskal Herri osoko inbidia izango gara. Abonuei esker, prezio horretan filmak zinema ikusiko dituenik ez dago.

Korrika egin gabe, autoan lasai ibili behar dela erakutsiko digute datorren astean Naturaldiako jardunaldietan. Izan ere autoan ondo ibili eta ahalik eta gutxien kontsumituen erakutsiko digute doako ikastaro batean. Energia berriztagarriak dira aurtengo gaia eta eguneroko hitzaldi interesgarriez gain, askotan Tolosan hizlari izan ditugun Miguel Delibes eta Joaquín Araujori omenaldia egingo diogu. Eta bihar eko-ikastetxe bat bisitatu eta eguzki labeen egindako pintxoak dastatzeko aukera izango dugu. Zakarontziak gaitzat hartuta Miren Gonzalezek egindako margolanak ikus ahaliko dira. Eta gaiarekin erlazioatutako filmak. Beti bada zerbaitegure herri santu honetan.

**L** Laburrak**Ziklomotorrei IAT-ITVa pasatzeko aukera Tolosan**

**EKONOMIA** ■ Ibilgailuen azterketa teknikoak arautzeko 2006ko ekainaren 9ko Errege Dekretuaren arabera, ziklomotor eta lau gurpileko ziklo arinek nahitaez egin behar dute aldizkako azterketa teknikoa. Kontuan izanda zer arazo dauden horrelako ibilgailuekin IAT-ITVko estazio finkoetara joateko, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Seguratasuneko Zuzendaritzak estazio mugikor batzuk jarri ditu. Horrela, apirilaren 28, 29 eta 30ean, 10:00etatik 14:30era, horrelako bat Tolosako Ferialekuan egongo da. Aurrez ordua hartu, 943-675858ra deituta.

**Gaur, Palestina izango da hizketagai Apirila Gorrian**

**POLITIKA** ■ Sanblasipiko Gazte Asanbladak antolatutako Apirila Gorria ekimenaren baitan, gaur hitzaldia izango da. Ekitaldia arratsaldeko seiretan izango da Otsabi gazte lokalean. Oraingoan, Palestina izango da hizketagai. Honetaz Komite Internazionalistako kideak mintzatuko dira. Saioa irekia da eta antolatzaileek Tolosa zein Tolosa inguruko gazte eta hain gazte ez diren guztiak gonbidatzen dituzte. Ekintza hauen helburua, besteak beste, «askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko borroka duten garrantzia azaltzea eta gorrak duen garrantzia agertzea».

# Porsche markako luxuzko autoen biltoki izango da bihar Tolosa

**Aisia** ■ Porsche Gipuzkoak antolatutako hirugarren kontzentrazioa Tolosan amaituko da; 30 auto inguru izango dira denera.

**ERREDAKZIOA**

Porsche Gipuzkoaren hirugarren kontzentrazioa egingo dute bihar Tolosan. Luxuzko auto marka honen lagunek eskualdeko hiriburua aukeratu dute kontzentrazioaren hirugarren etaparen amaierako kokaleku gisa. Paisaia ugari zeharkatu ostean 14:20ak aldera iritsiko dira Tolosara.

Garai eta modelo ezberdinetako 30 Porschek hartuko dute parte ibilaldian. Hauek lurralde ezberdinetatik datoz, batzuk Frantziatik, beste batzuk Espainiako Zaragoza, Teruel eta Kantabria probin-

tzietatik. Antolatzaileen esanetan, Oriako harana toki zoragarri inguratua dago, hala nola, Goizeueta eta Leitza arteko errepidea, Errezil, Gipuzkoako balkoia eta Albizturko harana. Hauek gidarien gozagarri izango dira.

Ibilbidea Tolosan amaitzearen arrazoietako bat da, bertan landatzen direla «inguruko babarrunik gozoenak». Izan ere, Roberto Ruiz Fronton Jatetxeko sukaldariak prestatutako babarrunak dastatuko dituzte Tolosako Idiakez Jauregian.

Bazkalduta eta gero Gorrotxategi museoan bisitatuko dute gidariak, eta Iñigo Royoren *Tolosa una mirada particular* liburua jasoko dute. Bazkaltzen duten bitartean autoan Plaza Zaharrean utziko dituzte. Hala, nahi duen oro gerturatu ahal izango da bertara, auto berezi hauek ikustera.

**Astehenean, jubilazioari buruzko hitzaldia, Iturrian**

**GIZARTEA** ■ Tolosako Ikastn-ek Jubilazioari buruzko hitzaldia antolatu du hilaren 14rako. *Jubilazioa eta rolen aldaketa, etapa berri honetara ohitzea* da mintzaldiaren izenburua. Ekitaldia 17:00etan hasiko da eta ondorengo atalak landuko dituzte: ikuspegi orokorra, osasuna zaintzeko hartu beharreko ohiturak, giza harremanak, denbora nola igaro eta alderdi ekonomiko nahiz legalak. Hitzaldia Iturria elkartean izango da, Euskal Herria plazan. Parte hartu nahi dutenek Harizpe eta Iturria elkarrean edo Bitartekaritza zerbitzuetan eman dezakete izena.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA  
EHORZKETAK

902 402 900  
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala  
Tolosa (Bellatokia)

## G Gutunak

Gaur Noa israeldar abeslariak kontzertua emango du Tolosako Leidor aretoan, 20:30etik aurrera, bere 'Genes ang Jeans' disko berria aurkezteko; Tolosakoa, gainera, mundu mailan eskaintzen ari den biran, Euskal Herrian emango duen zuzeneko bakarra izango da; kontzertu honen harira sorturiko eztabaidaren ingurukoak dira ondorengo gutunak.

### Sionismoaren aldeko demagogiarik ez

Andoni Iturzaeta Tolosako Udaleko kultur zinegotziak gogor kritikatu ditu Noaren kontzertuaren aurkako boikota bultzatzen ari direnak. AVT bezalako taldeko kideekin konparatzen heldu da. Demagogia hutsa!

Noa abeslari aparta da. Marizza, Cesaria Evora eta Carlos Nuñezek mailakoa. Horretan ez dago zalantzarik. Ekimen interesgarria da maila horretako abeslariak Tolosan izatea. Dudarik gabe. Tamalez, tolosarrek ezin izango dute artista palestinarrik entzun Leidor antzokian. Zergatik? Palestinak Israelen okupazioa pairatzen duelako. 4.500.000 errefuxiatu, 11.000 preso politikoa, lurren lapurreta eta harrisi erraldoia eraiki diete. Denok ikusi ditugu Gazako haurrak argindarririk gabe, janaririk gabe. Behar bada Iturzaeta jaunak ez du jakingo, baina Israelek Gazaren aurka indarrean jarri duen blokeoa dela eta, palestinarrek mugan hiltzen dira Israelgo Armadak ospitalera joateko muga igarotzen uzten ez dielako.

Eta nor da egoera horren erruduna? Israel. Sionismoak artista eta kirolariak erabiltzen ditu Europa eta munduaren aurrean aurpegi zuritzeko. Jendarte moderno eta progresista dela eta *terrorismoa*-ren aurka borrokatzen ari direla isladatzeko. Hemen ere bada kigu zer den hori. Noa (Mayumana edo Tel Aviveko Maccabi bezala) Israelen diplomazia zati bat dira. Eta Noa bera Armadako kide izan da, palestinarren errepresioa aurrera eramaten duen Armada berean, haurrak hiltzen dituen Armada berean. Eta Armada horrek egindakoa justifikatu du behin baino gehiagotan.

Israeli boikota egitea ez da Euskal Herrian burubero batzuei okurritu zaigun zerbait. Palestinako eragileek nazioarteko taldeei egindako eskaera da [www.pacbi.org](http://www.pacbi.org) helbidean ikusi daitekeenez. Gogoratzen al du Iturzaeta jaunak apartheideko Hegoafrikan ere nazioarteko boikota egin zela? Bazterkerian oinarrituko sistema bati aurre egiteko boikota izan zen erabilien tresna. Zilegi al zen orduan kirolari, eta abarri boikot egitea? Gauza bera eskatzen ari dira Palestinan: Israeli boikota palestinarren eskubideak errespetatzen ez dituen bitartean.

Sionismoa, apartheid bezala, populazioaren zati baten bazterkerian oinarrituko sistema da. Guk argi dugu horrelako egoera batean zapalduarekin gaudela eta ez zapaltzaileekin. Badirudi Iturzaeta jaunak ez duela hain garbi.

Beraz, Askapenatik dei egiten dugu gaur, 19.45ean, Leidor antzokiaren aurreko kontzentrazioara joateko, palestinarrekin bat gatzela eta sionismoa baztertzaila-aren aurka gaudela erakusteko gaudela erakusteko. Iturzaeta jaun, zu ere gonbidatua zauda.

**Martxelo Diaz.** Askapeneko kidea.

### Noa israeldar abeslariari boikota

Palestinako 172 erakunde politiko, sozial eta sindikalek, nazioartean egindako dei larrian, zor zaizkien autodeterminazio eskubidea eta errefuxiatuek beren lurren itzultzeko duten eskubideak errespetatzen ez diren artean, Israelgo Boikota egiteko eskatzen du.

Noak Israeldar bezala aurkezten du bere burua munduan zehar eta kontuan hartu behar da, Israel duela 60 urte (1948ko maiatzaren 14an) palestinar herria militarri okupatuz sortutako estatua dela, eta gaur egun ere, bonbardaketan, atxiloketan, blokeo ekonomikoaren edo kolonien eta apartheidaren harresiaren bidez Israelok okupazioarekin jarraitzen duela Zisjordania eta Gazako lurraldeetan.

Noak, palestinar herriaren aurkako jenoizidioan esku hartze zuzena eduki du. Bai, 17 urterekin Israelgo armadan sartu baitzen, hiru urte pasa zituen eta sarjento mailaririrtxi zen. Juduentzako bakarrik izango zen lurra sortzeko, milaka palestinar hil eta erbesteratu zituen Yitshak Rabinekin (bi aldiz Israelgo lehen ministroa izandakoa) harremanak izan zituen eta hil ondoren bere omenezko ekitaldietan ere parte hartu izan du Noak.

Datu hauek kontuan hartuz gero, Noa artistari, Noa abeslariari buruz beste irakurketa bat egin daiteke eta Andoni Iturzaeta edo Bildarratzen Udaleko kultura zinegotziak jarrera bat hartu beharko luke, Israeldar zapaltzailea babestea edo boikotaren bidez palestinarrei elkartzasuna adieraztea. Zoritxarrez, EAJk Ekialde Hurbilean hartu izan dituen jarrerengogoa eginda (Afganistanera tropa Espainiarrek bidaltzearen aldeko botua, Libanon soldadua...) zapaltzailearen alde egingo dutela dirudi.

Bukatzeke gaur, 20:00etan Leidor aretoaren aurrean egingo den elkarretaratzera eta aurrerantzean Israelen interesen aurka antolatuko diren ekimenetara gonbidatu nahi ditugu eragile eta herri-tarrak.

**Nagore Aramendi Agirregabiria.**

Israeli Boikota Euskal Ekimena taldeko kidea.

### Noa hoa?

Aurrekoan Iturzaeta jaunak argi utzi zuen zein den bere jarrera eta ziurrenik udaletxearean, Noa abeslari israeldarren kontzertua delata sortu den zurrumbilaoan. Arrazoi du Iturzaeta Noa nazioarte mailan oso ospetsua den abeslaria dela esatean edota Leidor beteko duela esaten duenean. Alde batetik, egia da ere kulturaren arloan bikotera deitzea oso *heavy*-a eta tamalgaria dela. Baina, kasu honetan, zoritxarrez, boikotera deitzeko arrazoiak egon badaude eta gutun honen helburuetako bat hori argitzea da.

Kultur zinegotziak aipatu zuten arabera (nik behintza horrela ulertu nuen), emakume honek herri palestinarra jasaten ari den zapalkuntzaren aurrean edukitako jarrera publikoak zein egin dituen deklarazioak ez omen zaizkio inporta (Tolosara kontzertu bat emateko, ekartzeko anean behintzat), abeslari hori herria ekartzeko arrazoiak, kulturalak direlako bere esanetan eta Noa arlo horretan musikalarri garrantzitsu bat da.

Kulturaren arlotik atera gabe, jakin nahiko nuke, nola den posible ez? Kultur zinegotziak, Palestinako artistak (zine zuzendariak, abeslariak, margolariak...) jazarri, bertan isolaturik (Israelgo gobernuak normalean, kulturagile, eragile politiko eta abar. Ez die bertatik ateratzen uzten; urrutira joan gabe, adibidez, lehengo urtean mendi martxara etorri behar zuten gazte taldeko kideei, ez zien etortzen utzi) mantendu eta Palestinako kultura aztarna guztiak desagertu araztea helburu du gobernuak justifikatzen duen pertsona bat Tolosara ekartzea nahiz eta munduko abeslari hobereenetakoa izan.

Herritarroan duintasuna (batzuentzat behintzat) horrela salbatu, ahaldu gutxi batzuen entrenimendurako penagarria iruditzeaz gain, nazioarte mailan, Israelen kulturalen boikota jasaten ari diren kulturagile eta artista palestinarrekiko eta nolaz Palestinako herri sifrutuarekiko errespetu falta ikaragarria dela iruditzen zait.

Bestalde, Noak publikoki egin dituen deklarazioak eta erakutsitako jarrera ditugu. Libano eta milaka libanotar hil zituen azkeneko gerraren alde agertu zen, Sharonen (Sabra eta Chatilan eman ziren 4.000 palestinarren hilketaren arduraduna, Bigarren Intifada eragin zuena, palestinarrek bizitzeko erreturto gabe utziko dituen harrisia egiten hasi zena, bera lehen ministro zegoela 1.500 palestinar inguru hil ziren...) aldeko deklarazioak egin zituen, Israelgo armadaren erreserbista da, bere gobernuak

palestinarren aurka daraman politika (Gazako blokeoa, palestinarren hilketak, harrisia...) justifikatzeaz gain, behin baino gehiagotan alde agertu da. Israelen badago artista talde bat bere gobernuaren egiten ari denaren aurka jarrera publikoa hartu duena, Noak babesten duen gobernuaren aldetik jaso duten gauza bakarra trabak eta bazterketak izan direlarik.

Hitler pintorea zen, ez oso ona, baina pintorea zen, burua joan zitzaion artista bat. Kultur saileko zinegotziak aurrekoan adierazi zuten arabera, Tolosan ikus dezakegun hurrengo pintura erakusketa Hitler berberena izan daiteke. Oraingoan Ekialde Hurbilarekin egin duten bezala, ez direlako, behar bada, Bigarren Mundu Gerraren, Holokaustoa... gogoetak egiten hasiko. Eta ziur nago, hau bai izango zela erakusketa bat, inork gutxi Tolosan ikusteak pentsatuko lukeena.

Arrazoiak badaudelako, herri palestinarren zapalketa desagertu ezean, Israeli boikot. Gora Palestina askatuta.

**Aritz Lopez.** Tolosako Sanblaspiko Gazte Asanbladako kidea.

### Syntoramak Noari buruzko gezurrak direla eta

Noa abeslariaren aurkako kanpainak dela eta, Syntorama abeslariaren estatu mailako kontzertuaren ardura duen enpresak adierazi nahi du, azken egunotan artista honen inguruan makina bat gezur zabaldu dela, interes zehatz batekin.

- Militarra dela. Ez da egia.
- Zerbitzu militarra ez dela derri-gorrezkoa Israelen. Bada.
- Bere senarra militarra dela. Ez: bada medikua da, pediatra, hain zuzen.
- Gazako bonbardaketan parte hartu zuela 2002an. Gezurra, une horretan Noaren lehen semea jaio berria zen.
- Sionista, nazia, terrorista deitu diote. No comment.

Noak ozenki kritikatu du Israeldar Ejerzitoaren jarrera. Palestinar Estatuaren sorreraren defentsaren aitzindari izan da Noa. Behin eta berriz demonstratu du, eta orain inoiz baino gehiago: une honetan palestinar aktibistekin batera, gatazkaren bi alderdiko gazteei bortizkeriaren eta fanatismoaren aurkako alternatibak eskaintzeko helburua duen egitasmo baten buru da, bakea lortze aldera.

Esan dezagun alde aurretik adierazpen askatasunaren alde gaudela, edozein egoeratan: nor bere iritzia emateko eskubide osoa du, noski. Baina paradokiko iruditzen zaigu, gu euskal kulturaren kriminalizazioa sufritzen ari garen honetan, beste batzuekin berdin egin behar dugula entzutea, era indiskriminatuan. Noari israeldarra delako boikota egitea, Bruce Springsteen, Sting edo Rosendori egitea gauza berbera da, hain herrialdetako gobernuak Iraken inbasioan esku hartu zutelako.

Noa zubiak eraikitzeko asmoz ahalgin itzela egiten ari da, eta gatazka horren bi alderdietako bortizkeria salatzen du. Jarrera horren aurkako boikota eskatzen ote dute?


«Herritar guztiak borrokatu behar dute bakearen alde, ez politikariak bakarrik. Eta oso politikari buru ausartak behar dira» (*El País*, 2008ko apirila).

«Israelok bake iraunkorra negoziatu behar du Hamasekin, akordio saihestezina da» (*La Vanguardia*, 2008ko apirila).

«Abu Mazengizon ona da eta bakea nahi du» (*Diario de La Rioja*, 2008ko apirila).

«Beldurra eta mesfidantza desagerrarazteko bata bestearen parean eseri beharra dago. Palestinar guztiak ez dira terroristak, israeldar guztiak kolono biolentoak ez diren bezala. Baina Europako komunikabideek estereotipo horiei etengabe eusten diete. Odolak egunkariak saltzen ditu». (*Aux Magazine*, 2008ko apirila).

**Cruz Gorostegi San Jose eta Mikel Camino da Andres.** Syntorama



**EUSKO AUURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea, prentsaurrekoaren une batean. I. GARCIA

## Adin guztiei zuzenduta, astelehenean hasiko da VI. Antzerki Astea

**Zizurkil** » Marian Lazkano alkateak eta Ainhoa Larrea kultur teknikariak eman dute zazpi egunetan zehar izango diren lanen berri.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo VI. Antzerki Astea astelehenean hasi eta hurrengo igandera arte iraungo du. Adin guztiei zuzendutako egitaraua izango du, Marian Lazkano alkateak eta Ainhoa Larrea kultur teknikariak atzoko prentsaurrekoan azaldu zuten. Umoreak ere leku nabarmena izango du antzezlanetan.

Astelehenean ostegunera bitartean izango diren antzezlanetara adostutako ikus-entzulegoa joango da, hau da, ikasleak. Osteguneko saioan, antzezle lanetan Pedro Mari Otaño eskolako ikasleak izango dira. Lazkanok nabarmendu du herrian antzerkiak garrantzia duela ikastetxeetan eta «giri

### » EGITARAUA

- **Apirilak 14, astelehena.** Ados Teatroaren *Einstein*. 6-12 urtekoei zuzenduta. 11:00etan eta 15:15ean, Joxe Arregi plazan.
- **Apirilak 15, asteartea.** Ogirik gabe etorri zen semea lana, 11:00etan, Villabonako Gurea aretoan, DBH2, 3 eta 4koentzako.
- **Apirilak 16, asteazkena.** Galtzagorriak txotxongilo emanaldia, 3-6 urte bitarteko haurrentzat Atxulondon, 15:15ean.
- **Apirilak 17, osteguna.** Pedro

berezia» sortzen dela ikasle horiek beraien emanaldia egiten dutenean jendaurrean.

### Kale antzerkia

Ostiralean eta larunbatean kale antzerkia izango da. Hauetara sarre-  
doako izango da. Ostiralean euria eginez gero, Atxulondo kultur etxean izango litzateke emanaldia. Larunbatekoan, berriz, Ziminte-

Mari Otañoiko ikasleen emanaldia Atxulondon, 15:30ean.

- **Apirilak 18, ostirala.** Arturrello di popolo-ren emanaldia, 19:30ean, Joxe Arregi plazan.
- **Apirilak 19, larunbata.** Trapu Zaharrak *Visa Vis* emanaldia emango du, 22:30ean, Zizurkil Goiko plazan.
- **Apirilak 20, igandea.** Xurdirin eta Goringo lakuaren misterioa, In-txaurren frontoian, 17:00etan. Sarre-  
ra: 5 euro.

yuan ikusi ahaliko da antzezlan. Ostiralean, Arturrello di popolo zirkoa eta antzerkia bateratuko ditu. Larunbatekoan, Trapu Zaharrak bere umorea jarriko du.

Igandean, hilaren 20ean, abukaturko da VI. Antzerki Astea. In-txaurren frontoian *Xurdirin eta Goringo lakuaren misterioa* antzezlan ikusteko aukera izango da 5 euroren truke.

## Plaza bati etakide baten izena jartzeari buruzko informazioa eskatu dute

**Zizurkil** » Izena jartzea onartu zeneko akordioa bidaltzeko eskaera egin dio Espainiako Auzitegi Nazionalak Udalari.

### ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalak Fernando Grande-Marlaska epaileak Zizurkilgo Udalari atzo eskatu zion herriko plaza bati etakide baten izena jartzeari buruzko informazioa. Eskaera Fernando Mugikaren eta Miguel Angel Blancoren senideek egindako sa-

laketen ondoren etorri da. Hain justu, Udalak herriko plaza bati Jose Luis Geresta *Ttotton* izena jartzeko hartutako akordioari buruzko informazioa eskatu du.

Gai hau eramateko eta «terrorismo delituen gorazarrearen eta justifikazioaren eta terrorismo biktimak iraintzearen delituri» eman den ikertzeko eskumena duela zehaztu du Grande-Marlaskak.

Etakidearen izena jartzea onartzen zuen udal akordioaz gain, erabaki hori hartu zuten pertsonen izenak bidaltzeko eskatu du epaileak.

## Laburrak

### Ordozgoiti-Inza, Udaberri Txapelketako finalean

**VILLABONA** ■ Behar-Zanako Ander Inza eta Ilazki Ordozgoiti bikoteak Gipuzkoako Udaberri sariko finala jokatu dute, bihar, jubeniletako 3. mailan, Urnietako pilotalekuan Irungo Kurpil-Kirolak taldeko Lekuona-Ballesterosen aurka.

### Danena-Olaederrakoak Euskadiko Ligan, bihar

**VILLABONA-ZIZURKIL** ■ II. Euskadiko Liga izango da jokoan bihar Basaurin (Bizkaia). Kadete eta Promesa mailako Danena-Olaederrako pultsulariak ariko dira bertan, 17:00etatik aurrera. Hain justu, Olaederra kiroldegian I. Euskadiko Liga jokatu zuten maila berdinetan. Kadeteetan, lehenengo postua Gipuzkoak lortu zuen, pultsulari guztiak Danena-Olaederrakoak izanik: Jokin Urkizu, Julen Intxausti, Adrian Sasiain, Axier Gallego. Banakako saikapean Jokin Urkizu bigarren izan zen eta Julen Intxausti hirugarren. Promesetan, Gipuzkoak hirugarren postua lortu zuen, guztiak ere Danena-Olaederrakoak: Unai Calvo, Koldo Saracho eta Kellyam Quintana.

## I. Nañarri Rallysprintaren inguruko bilera deitu dute hilaren 14rako

### ERREDAKZIOA

KMK-08 egitasmoaren baitan urtean zehar antolatzen diren ekitaldiekin jarraituz, hilaren 26an I. Nañarri Rallysprinta egingo da. Hori horrela, KMK-08 batzordeak hilaren 14an, jendea bildu asmoz, Amezketan egingo den bilera agertzeko deia egin du. Plazan elkartuko dira, 20:00etan.

Alegiatik abiatuko den rallysprint horrek, Orendainetik eta Abaltzisketatik pasatu ondoren, Amezketan izango du amaiera. Aurtengo rallysprinten egutegian puntuagarria izango den proba da.

Proba honek Amezketan bera eta inguruko herriak bete-betean ukitzen dituzten eta antolaketan handia duenez, jende askoren beharra dute antolatzaileek egun horretan: sarrerak saltzeko, komisario lana egiteko, bidegurutzak mozteko eta abar... Jende askoren laguntza gustura jaso eta eskertuko dutela diote antolatzaileek.

txokoa  
h

emanaldirako  
**2 sarrera pare** zozketan

### Irabazleak:

- Regina Tolosa (Amezketan)
- Xanti Saizar (Tolosa)

Larunbata, apirilak 12 ◦ 20:30ean  
Tolosako Leidorren

**Kresala**  
dantza taldearen

**Sehaska**  
ikuskizuna



# Pello Arzallus (EA) da Bidegoiango alkate berria

**Bidegoian** » Zentsura mozioaren ondorioz Ugarte alkate ohiak zinegotzi jarraituko du, baina kargurik gabe.

Udalaren mankomunitate eta erakundeen izendatzea egin zuten segidan, eta udalkideen dietaren onarpena. Udal aholkularitza kontratatzeko proposamena luzatu zuten bukatzeko.

dituzte datozen egunetan. Orain arte Juan Ugarte izan da alkatea, baina aurreko ohiko bilkuran sei zinegotziek sinatutako zentsura mozioa aurkeztu zuten, eta ondorioz, Ugartek kargua utzi behar izan zuen. Zinegotziek emandako arrazoia honakoa izan zen: «Alkatearekiko konfidantza falta».

## NEREA URBIZU

Bidegoian herenegun iluntzean alkate berria izendatu zuten deitutako ezohiko bilkuran, jabetza hartzea izan zen. Beraz, hemendik aurrera, Pello Arzallus (EA) izango da alkate berria.

Lehenengo puntua jabetza hartzea izan zen, eta ondoren, berriz, batzorde informatiboen osaketa egin zuten, ordezkariak izendatuz.


## Herritarrek «jakin nahi dute»

Ondoren, herritarrek hitz egiteko txanda iritsi zen, eta herritar batek aurreko alkateari «zentsura mozioa aurkeztearen arrazoiak emateko asmorik ba ote zuten» galdetu zuen. Alkate berriak datozen egunetan (bizpahiru aste barru) banda egingo dutela adierazi zion herritarri, eta honetaz informatzeko bilera antolatuko dutela.

Beraz, haien arrazoiak emango

## Ugarterentzat kargurik ez

Juan Ugarte alkate ohiak zinegotzi jarraituko zuela adierazi zuen zentsura mozioa aurkeztu ondoren, eta hala egingo du. Sei zinegotzik kargu ezberdinak izango dituzte haien artean banatuta: Ugartek, zazpigarren zinegotziak, ez du kargurik izango.



## Arenasen mihiseak jubilatuenen

**ALEGIA** » Alegiko jubilatuen tabernan hilabete osoan zehar Lucia Arenas tolosarraren margolanak izango dira ikusgai. Bertan, oleo teknika erabiliz egindako koadroak daude: paisaia, Alegia herriko ikuspegiaren bat eta erretratoak ere badaude, baina orokorrean, landare asko ikus daitezke. Salgai ere daude. LUCIA ARENAS

## Z Zurea da hitza info

# Tolosako kiroldegitik Bilbora

## TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA

Bihar, larunbata, 07:30ean bilduko gara Tolosako kiroldegian elkarrekin autoetan joateko. *Feministok eraldaketarako borrokan!* lelopean asteburu honetan Portugaleten egingo diren Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetan aukera ezin hobea dugu emakumeok bildu, hausnartu, ikasi eta elkarrekin etorkizuneko ildoak zehazteko.

1994ean burutu ziren azken jardunaldiak eta hamalau urtetan egoera aldatu egin denez, hausnarketaren beharra ikusi du Euskal

Herriko Koordinadora Feministak. Hiru ardatz izango dituzte aurtengo jardunaldiek: *Emakumeok herrian eta munduan, Emakumeok indarkeria sexistari aurre eginez* eta *Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intsumituak*. Bertan, feminismoaren garrantzia, indarkeria sexistaz, prostituzioaz, emakume etorkinen egoeraz, prekaritateaz, abortoz, edota emakumeon partehartze sozio-politikoaz hitz egingo da.

Emakume gazte eta heldu oro

gonbidatuta dago ponentzia eta tailerretan parte hartzea. Baita, 20:00etan Bilboko plaza zirkularretik abiatuko den manifestaziora ere. Horrez gain, gaur *Emakume gazteen asanblada* egingo da Bilboko Kukutza gaztetxean 16:30ean. Bertan, emakume eta gazte izateagatik bizi den egoera espezifikoaz aztertuko da, kontuan izanda *berdintasun formalean* hezitako belaunaldia dela emakume gazteena. Animatu eta parte hartu!

## Laburrak

### GIMP ikastarorako plazak libre daude oraindik

**ANOETA** » Anoetan plaza batzuk libre gelditzen dira oraindik GIMP ikastarorako, Photoshop antzekoa dena, hain zuzen. KZgunean izango da, maiatzaren 9tik ekainaren 6ra, lau ostiraletan (maiatzaren 23an ez da klaserik izango, herriko festak direla eta), 18:00-20:00. Interesatuta daudenek udaletxera deitu behar dute: 943-651200.

### Koadrila eguneko bilera astelehenean izango da

**ANOETA** » Anoetako festetako koadrila egunean koadrila berrin batek parte hartu nahi badu astelehenean eman behar da izena, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. Bilera honetan, egun hartan egongo ez den koadrila ere agertzea eskatu dute.

### Asteartean Kilometroen inguruko bilera izango da

**IRURA** » Hilaren 15ean, 19:00etan Irurako ikastolako areto nagusian bilera egingo dute. Bertan, maiatzeko eta ekaineko arropa saltzeko irteeren egutegia osatuko da.

## Irurako Udala IRAGARKIA

Honen bidez jakinarazten da, Udal honen uneko beharrak direla eta, ondorengo kontratazioak egingo dituela:

- Kultura laguntzailea: Hilabeteko iraupena eta astean 12,5 orduko jardunaldia.
- Gizarte dinamizatzailea: 2 hilabetetako iraupena eta astean 12,5 orduko jardunaldia.

Interesatuek bete beharreko baldintzak: euskara jakitea eta gutxienez LHIII mailako ikasketak eginak izatea. Eskarera aurkezteko epea apirilaren 13etik 18ra artekoa da, biak barne. Tokia: Udaleko bulegoak, bulego orduetan, Irura, 2008ko apirilaren 10ean ALKATEA



## Elgoibarko IMH

## Ingeniaritza imh

DBH amaitsu ondoren	Batxilergoa ikasi ondoren	Goi-Mailako Zikloen ondoren
<b>Heziketa Zikloa Erdi Maila</b> A/D ereduak <b>2 urtez</b> 3 hilabeteko praktikak enpresan Arloak: • Mekanizazioa • Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa Sarbide froga egin ez gero Goi-Mailara pasa daiteke <b>Titulua: Teknikaria</b>	<b>Heziketa Zikloa Goi-Maila</b> A/D ereduak <b>2 urtez..... + 3 urtez: eman 5ekoa!</b> 3 hilabeteko praktikak enpresan Arloak: • Proiektu mekanikoen garapena • Mekanizazio bidezko produkzioa(*) • Industri ekipoen mantenimendua(*) <b>3 urtez</b> 3 urtetako lan esperientzia • BERRIA: <b>IKASI ETA LAN(*)</b> arloetan <b>Titulua: Goi-mailako Teknikaria POI metodologia (PBL) Irakaskuntza Eleanitza</b>	<b>Ingeniaritza Eskola</b> 3 hilabeteko praktikak enpresan Ezaugarriak: • Lan esperientzia lortu ikasten ari zarela • Ikasketak ordaindu irabazitakoarekin • Boloniako itunean indarrean dagoen titulu europar ofizialia • Atzerrian lan-egonaldia <b>Titulua: Ingeniaritza Txandakao Metodologia Irakaskuntza Eleanitza</b>

**Ate irekiak:**  
**Apirilak 19, larunbata - goizeko 11:00etan**  
 IMH- Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfmoa.943-74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es



## Aste Misiolariaren barne begirada

**Ibarra** » Etzi amaituko da VII. Aste Misiolaria, baita San Bartolome parrokiaren ikusgai dagoen 'Arruperen begirada' argazki erakusketa ere.

### ASIER IMAZ

Begirada baten inguruan argazki erakusketa antolatu dute Ibarako San Bartolome parrokiaren. Ez zen nolana hiko begirada ordea Pedro Arruperena; «ezagutu zuten askok bere begietaz hitz egiten dute: bere begirada zorrotz itauntzaileaz. Ez

zen begirada mehatxatzailea, goxoa baizik. Goxoa, errukiorra, azkarra eta argia».

### Etzi amaituko da erakusketa

Ibaratik Misio Taldeak VII. Aste Misiolariaren barnean antolatu du Pedro Arruperen bizitzaren esp-

sizioa. Apirilaren 4ean zabaldu zuten ateak parrokiak eta etzi amaituko da erakusketa. 86 argazki osaturiko «esposizio zoragarria» 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik goizez. Arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. Antolatzailen esanetan, «bere jaiotzako 100. urteurrena ospatzen dugu eta ikuskizun hau bisitatzeak merezi du, nahiz gure sentiberatasun misiolaria bizkortzeko nahiz Jesusen Lagundiko fedezko gizon honen bizitzako erantzunaz gozatzeko».

### Gaur elkartasun afaria

Arruperen begirada Aste Misiolariaren barneko ekimen bat da, izan ere erakusketaz gain, gaur elkartasun afaria ospatuko dute Parrokiako geletan.

### Bihar Spinning, etzi Eukaristia

Bihar 16:30etik aurrera Elkartasunaren Ziklo Indor Maratoia lehaituko da Belabieta kiroldegian. Antolatzailerek azaldu dutenez hasieran jarritako plaza guztiak beteta aurkitzen dira, horren ondorioz,

80 kirolarik hartuko dute parte maratoian. «Ikuskizun polita izango da eta herritarrek eta ingurukoak kiroldegira gonbidatu nahi ditugu, ekitaldiari eta kirolariei elkartasuna azaltzeko».

VII. Aste Misiolariaren azken egunean, etzi, Parroki Elkartearen Eukaristi misiolaria ospatuko dute, «espresio eta sinbolo bikainez osatu. Afarian eta bertan bilduko den dirua, senidetatsuna bizi dugun hiruro misio lurraldetakoekin banatua izango da».



Lekunberriko 31 artoan ospatuko dute III. Satur Eleta Lehiaketaren finala eta bertan musika eskolako hainbat herritako ikaslek parte hartuko dute. JAIONE ASTIBIA

# Satur Eleta Lehiaketaren finala izango da bihar Lekunberri

**Musika** » Hainbat mailatan lehiatuko dira ikasleak biharko finalean eta saxoa eta perkusioa izanen dira bertan gutxien entzungo diren instrumentuak.

berdinak nahasiko, Saigos eta Etxarri izan dira, beraz, pianoa eta gitarra nahasiko dituzten ikasle bakarrak.

Pianoa izanen da finalean gehien joko duten instrumentua, izan ere 12 ikaslek joko baitute. Txistua, berriz, 6 emanalditan entzun ahaliko da, akordeoia 4 ema-

nalditan, trikitixa bitan eta saxoa ikasle bakarrak joko du, baita perkusioa ere.

## Leizatik 8 ikasle

Beñat Altzelai (saxoa), Amaia Ezkurdia (akordeoia), Uxue Mutuberria (trikitixa), Oinatz Mariezkurrena (perkusioa), Manex Mo-

reno (pianoa), Mikel Sagastibeltza (gitarra), Lorea Zabaleta (txistua) eta Zuriñe Goikoetxea (pianoa) dira Leizatik finalera joanen diren ikasleak.

Denek bakarlariek kategorian hartuko dute parte, Altzelai eta Ezkurdiak 8 eta 9 urte bitarteko kategorian, Mutuberriak, Mariezku-

rrenak, Morenok eta Sagastibeltzak 10-12 bitartekoan, eta Zabaletak eta Goikoetxeak 13-15 urte bitartekoan.

## Sariak

Sariei dagokienez, maila bakoitzean (bakarlari, bikote, hirukote eta laukote) adinaren arabera lau maila daudenez, bakarlarietan, esaterako, lau lehenengo sari emanen dituzte. Hauetan irabazleak 100 euro eramanen ditu eta datorren urteko matrikula dohainik. Bigarren gelditu denak matrikulan %60ko beherapena izanen du eta hirugarrenak, %40a.

Bikoteetan, berriz, lehenengoek 120 euro eramanen dituzte, hirukoteetan, 150 euro, eta laukoteetan, 160 euro. Hauek guztiak hurrengo urtean matrikula debalde izanen dute. Honetaz gain, bigarren eta hirugarren gelditzen direnek bakarlarien kategorian jasotako sari berajasoko dute.

## Aurten maila altuagoa

Jose Javier Irigoien Aralar Musika Eskolako zuzendariak azaldu duenez, maila aurten lehengo urtean baino hobea da. «Pasa den urtean jende askok eman zuen izena, baina gero asko ez ziren aurkeztu. Antza denez ez zekiten oso ongi lehiaketaren zertan zen, eta gero ez zuten aurrera jarraitzen». Irigoienek, aurten hori aldatu egin dela dio. «Aurten izena eman dutenetatik gehienak aurkeztu dira. Ikasleak ari dira, beraz, pixkanaka lehiaketari neurria hartzen».

Irigoienek arabera, 60 ikasle inguruk hartu dute parte lehiaketan. «Orain amaiarera iritsi direnei beren burua defendatzea besterik ez zaie gelditzen».

## » FINALISTAK

### NAIARA GARZIA

Aralar Musika Eskolako Leizako zortzi ikaslek hartuko dute parte Satur Eleta III. Musika Lehiaketaren finalean bihar Lekunberriko 31 Artoan.

Orotara 24 taldek hartuko dute parte finalean, hauetatik hiru bakarlari 8 eta 9 urte bitartekoak dira, beste zortzi 10 eta 12 urte bitartekoak, beste lau bakarlari 13 eta 15 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak bi izanen dira. Beraz, 17 bakarlari izanen dira finalean, bakoitza bere instrumentuarekin.

### Bikote eta hirukote gutxi

Bestalde, 5 izanen dira parte hartuko duten bikoteak, 8 eta 11 urte bitartekoak 2 eta 12 urtetik gorakoak, 3. Hirukote eta laukoteei dagokienez, bakoitzetik bakarra izanen da. Saxoa, akordeoia, pianoa, trikitixa, perkusioa, gitarra, txistua, zeharkako xirula izanen dira ikasleek joko dituzten instrumentuak.

Bikote, hirukote eta laukoteei dagokienez, bikote batek izan ezik (Lekunberri-Larraulo Xanti Saigos eta Sugoi Etxarri) gainontzekoek ez dituzte instrumentu ez-

### Bakarlariak 8-9 urte

- **Leitza.** Beñat Altzelai, saxoa. Bera izanen da instrumentu hau joko duen bakarra.
- **Leitza.** Amaia Ezkurdia, akordeoia.
- **Lekunberri-Larraun.** Maddi Begiristain, pianoa.

### Bakarlariak 10-12 urte

- **Basaburua.** Lorena Barberena, akordeoia.
- **Leitza.** Uxue Mutuberria, trikitixa.
- **Leitza.** Manex Moreno, pianoa.

- **Leitza.** Oinatz Balda, perkusioa. Perkusioa berak soilik joko du.
- **Lekunberri.** Sugoi Etxarri, gitarra.
- **Ultzama.** Olatz Dorai, trikitixa.
- **Leitza.** Mikel Sagastibeltza, gitarra.

### Bakarlariak 13-15 urte

- **Leitza.** Lorea Zabaleta, txistua.
- **Leitza.** Zuriñe Goikoetxea, pianoa
- **Ultzama.** Amaia Arretxea, akordeoia.
- **Ultzama.** Xima Zubillaga, zeharkako xirula.

### Bakarlariak 16 < urte

- **Araitz-Betelu.** Beñat Pellejero, akordeoia.
- **Lekunberri-Larraun.** Brais Novoa. Pianoa joko du, gehien entzuten den instrumentua.

### Bikoteak 8-11 urte

- **Lekunberri-Larraun.** Xanti Saigos (pianoa) eta Sugoi Etxarri (gitarra).
- **Lekunberri-Larraun/Araitz-Betelu.** Maddi Soroa eta Myriam Iriarte. Biek pianoa joko dute, elkarrakin.

### Bikoteak 12 < urte

- **Lekunberri-Larraun.** Laida Zabaleta eta Andrea Etxarri (pianoa).
- **Ultzama.** Joseba Oiz eta Haizea Goñi (pianoa).

### Hirukoteak 12 < urte

- **Araitz-Betelu.** Lierni Pellejero, Maddi Sotil eta Saioa Amundarain (txistua).

### Laukotea 12 < urte

- **Lekunberri-Larraun.** Mikel Hermandorena, Amaia Mlikeo, Arantxa Filgeira, eta Aiora Etxarri.

## GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (ERREFERENTZIA: EE08-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Giza Baliabideak sailean lan egingo du, eta taldeko langileen administrazioaz eta giza baliabideen kudeaketaz arduratuko da.

### Eskaizten da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza izatea.
- EGA edo balokidea izatea.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia izatea (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza...).
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Kontuan hartuko da giza baliabideak kudeatzeko programa informatikoak ezagutzea.

### Eskaizten da:

- Iraupen luzeko kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hastea.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, apirilaren 22a baino lehen, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

## BERRIAK kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

### Eskaizten da:

- Urtebeteko kontratua (luza daiteke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

### Eskaizten da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

### Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculum [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora, erreferentzia zehatuz.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

- **Tolosa.** Interlude eta Vision Tunnel taldeen kontzertua Bonberean 22:30ean.
- **Tolosa.** Noa abeslari israeldarra Mundua Tolosan zirkloaren barruan, Leidor aretoan 20:30ean.

### Hitzaaldia

- **Tolosa.** Palestinaz ariko da Komite internazionalistak taldeko kide bat Otsabi gazte lokalean 18:00etan, Apirila Gorriaren barruan.

### Zinema

- **Ibarra.** Euskarazko film laburren V. zirkuitua Gaztetxean 20:00etan.

### Irteerak

- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak Urdazubi-Arraioz mendi irteera antolatuta du hilaren 20rako, Baztan bailaran, Alkurruntz (934 m) eta Legate (870 m) mendiak igoz. Sei ordu inguruko irteera. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).
- **Tolosa.** Atxerito eta Anie mendietara irteera antolatuta du Oargi elkarteak datorren astebururarako. Izen-ematea, elkartearen edo oargi@telefonica.net.
- **Tolosa.** Harizpek Saloura irteera antolatuta du ekainaren 1etik 15era pentsio osoan. Izen-ematea, elkartearen 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).

### Deialdiak


- **Ibarra.** VII. Misio Astearen barruan, afari solidarioa San Bartolome parrokiako lokalean ostiralean. Txartelak, bertan 10 eurotan.
- **Tolosa.** Tolosa Kup 08 txapelketan izena emateko aukera dago www.tolosakoudala.net-en edota Gazte Informazio Bulegoan. 75 euro ordaindu beharko dira.
- **Tolosa.** Uretako sorosle ikastaroa antolatuta du Gurutze Gorriak Usabal kiroldegian. Izen-ematea, 607 845 574 telefonoan.
- **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK


- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Ekiaren edertasuna eta Portugal



**MARIA JESUSURTEAGA OLANO** «Peruko ia itsasalde osoa basamortua da. Iparraldean, Limatik 600 km.ra, arrantzale herri zoragarri bat dago Huan-chaco, Trujillo hiri inguruan. Argazkia ostatu bateko terrazatik atera nuen».



**IKER BEA** «Portugaletik bi argazki heldu zaizkigu: «Argazki hau, gauean Aveiroko (Portugal) kanal nagusian ateratakoa da. Argazkian *Moliceiro* ak ikusten dira (hango kanaletako txalupa tipikoak)», esan digu Ikerrek.



**MILA BEGIRISTAIN** «Eguzkiak une ederrak eskaintzen ditu bai Peru baino Saharan ere. Milaren argazkiak, behintzat, horrela erakusten du: «Ilunabarra Saharako kanpamentuetan», azaldu du berak.



**NAIARA UGARTEMENDIA** «Naiarak Portugal ezagutu du Aste Santuan. Hauxe azaldu digu argazkia bidali digunean: «Aste santuko oporrak Portugaleko hainbat lekutan pasa ditugu. Hona hemen, Oportoko argazki bat».

## A Agurrak



**Urte askoan!**  
**Joakin Mendizabal 'Bondei'.**  
Gaur 80 urte. Hi bizi haiz, hi!



**Urte askoan!**  
**Garazi Altuna Aburuza (Villabona).** Gaur 2 urte.  
Zorionak familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak